

vive's

Por una vida libre
de micromachismos

Mikromatxismorik
gabeko bizitzaren alde

#CazandomicroMachismos

Fundación 
Fondo Forakatu



MIKROMATXISMOAK EHIZATZEN ETSAI IKUSEZINAK ETA ISILAK

AURKIBIDEA

1. “Mikromatxismoak ehizatzen” proiektuaren aurkezpena
2. Konta iezadazu beste ipuin bat
3. Zer konta askorekin
4. Esan iezaiozu kamisetekin

“Mikromatxismoak ehizatzen” proiektuaren aurkezpena

“Mikromatxismoak ehizatzen: Etsai ikusezinak eta isilak”

Fundación Fondo Formaciónen proiektu bat da, Bizkaiko Foru Aldundiak finantzaturakoa. Bere helburua neska-mutikoei **mikromatxismoak** identifikatu, ikusarazi eta salatzen laguntzea da.

Normalean, genero-indarkeria tratatu txar edo eraso fisiko edo sexualarekin lotzen da soilik. Baina, egiaz, emakumeen aurka eragindako indarkeria modu anitzetan eta esparru guztietan ematen da.

Mikromatxismoak dira emakumeen aurkako indarkeriaren adibide bat, erabat naturalizaturik, gure bizitzako esfera guztietan barneraturik dagoena egunez egun eta modu horretan hautematen ez duguna.

Haren bidez generoarekin lotutako estereotipoak betikotu egiten dira eta emakume nahiz gizonengan jarrera jakin batzuk finkatzen dira, berdintasunean aurrera egitea ekiditen dutenak. Gizonek emakumeen gainean duten nagusitasuna indartzen duten portaerak dira, diskriminazio sotilak dira, ia ikusezinak. Hautemanekinak dira, nahiz eta gure sozializazioan barneraturik egon.

Mikromatxismoak jardun eta jarrera sexista ikusiak dira, gizon nahiz emakumeok egunero erreproduzitzen ditugunak ia nahigabeen, naturala bailitza, ez kulturala. Tebistako iragarkietan ikus ditzakegu, entzuten ditugun abestietan, edozein tabernako elkarrizketan edo gure etxean bertan. Aurrez aurre ditugu ordu orotan, baina gehienetan ez gara haiek hautemateko gai.

Hori dela eta, ezinbestekoa da gazteak sentibilizatzea, bikote gazteek errespetuan eta berdintasunean oinarritutako harremanak izan behar dituztela erakutsiz, sekula batak bestearekiko nagusitasuna erakutsi gabe.

Ikuspegi horretatik, Fundación Fondo Formaciónek-Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin- neska-mutikoekin lan egin du, gure eguneroko bizimoduan ikusten ditugun **mikromatxismoak** hauteman eta aztertzen ikas dezaten, modu horretan, horiei aurre egin eta baztertzeke.

Konta lezadazu beste ipuin bat

Ipuin klasiko ia guztietan (Errauskine, Edurne Zuri, Txano Gorritxo) emakumeen irudia oso estereotipaturik dago, erabat otzanak dira eta mendekoak gizonekiko.

Istori horietako protagonistak lirainak dira beti, babesgabeak, zaintzaileak eta gainerakoen zerbitzariak. Ezkontzea eta beren seme-alabak zaintzea dute helburu. Aitzitik, lirainak ez diren emakumeak ipuineko sorgin maltzurak dira beti, printzesaren edertasunaren bekaiztiak.

Haurren ipuinetako genero aldetiko estereotipo horiek nahiz mikromatxismoak agerian jartzeko modu bat da gure buruari galdetzea ipuin horietan gizonek eta emakumeek zein eginkizun betetzen duten. Emakumeak arriskuan diren damatxoak dira eta gizonak, berriz, salbatzaileak.

Haurtzarotik irakurtzen dizkiguten ipuin eta istorio horiek, beste estimulu batzuekin batera, eragin garrantzitsua dute gure heziketan eta sozializatzeko moduan, eta helduaroan dugun jokabidean nahiz harremanak izateko eran.

Hori dela eta, haurren ipuinetatik mikromatxismo guztiak baztertzea erabaki dugu. Honatx “Mikromatxismoak ehizatzen: etsai ikusezinak eta isilak” proiektuan parte hartu duten neska-mutikoek berridatzitako lau adibide bikain.

LOTI EDERRA

Behinola okin oso txiro bat bizi zen. Dirurik ez zuenez, egun batez azti ahaltzu bati lapurretan egitea erabaki zuen, jan ahal izateko. Aztia horretaz jabetu zenean okinaren aurka mendekua egitea erabaki zuen, haren alaba txikia madarikatuz, hura baitzen gizon gajo harrek gehien maite zuena. Madarikazioaren arabera, neskatoak 16 urte betetzen zituenean goru baten ardatzarekin ziztatu egingo zen eta amets sakon batean murgilduko zen mende oso batez.

Haatik, iratxo itsusi batek aztikeria arindu zuen, zera esanez: *“Neskatoa lotan geratuko da Cheddar gazta zati usaintsu batekin esnatzen duten arte”*.

Neskatoa, azti maltzurak iragarri bezala, goru baten ardatzarekin ziztatu zen 16 urte bete zituenean, eta mende bateko amets sakon batean murgildu zen.

Urte batzuk beranduago, zonaldean zehar pasioan zebilen emakume gaztagin batek lotan zegoen emakumea aurkitu eta halako sustoa hartu zuen ezen zorabiatu egin baitzen. Une hartan, Cheddar gaztaren usaina aztikeriak jota zegoen neskatoarengana iritsi eta esnarazi egin zuen. Orduan, haren alboan zorabiatu zegoen emakume bat ikusi eta leunki esnatu zuen.

Modu horretan, okinaren alaba eta gaztagina elkar ezagutzen hasi ziren. Denborarekin, elkarren gustuko zirenez eta zoriontsu zirenez, harreman bat hasi zuten. Hainbat urte geroago, biak heldu zirela, haur txinatar bat hartu zuten etxean.

TXANO GORRITXO

Emakume batek, behinola, alabari, Txano Gorritxorik, amona bisitatzera joateko eskatu zion, aspaldi ez baitzuen ikusi. Halaber, askaritarako saskia eramateko eskatu zion.

Amonaren etxera joateko Txano Gorritxok basoa zeharkatu behar zuen ezinbestean. Bide erdira ailegatu zelarik, neskatoak oso oldarkorra zirudien otso bat topatu zuen. Hark zera galdetu zion Txano Gorritxori: “*Nora Zoaz?*”, baina hark ez zion jaramonik egin eta buelta eman zuen, bere bidean jarraituz.

Orduan otsoak haurra jarraitzea erabaki zuen, isi-isilean. Baina, bideko zati batean, bidezidor bat hartu zuen amonaren etxera Txano Gorritxo baino lehenago iritsi ahal izateko. Animalia iritsi zenean, atzealdeko leiho batetik sartu zen...

Txano Gorritxo iritsi zenean amona eta otsoa borrokan aurkitu zituen, otsoa amona jateko ahaleginean baitzebilen. Neskatoa sartzen ikusi zuenean, otsoa hura ere erasotzen ahalegindu zen, jan nahian. Txano Gorritxok otsoaren aurka borrokatu zuen, ahal zuen moduan bere burua defendatuz.

Une hartan, Txano Gorritxoaren ama agertu zen atetik. Hiruren artean (amona, ama eta Txano Gorritxo bera) otsoa hiltzea lortu zuten eta lasai asko askaldu zuten.

EDUR ZURI

Urruneko Erreinuko errege-erregina batzuek Edur Zuri izeneko seme bat izan zuten. Erregea handik gutxira hil zen gaixotasun larri baten ondorioz, eta urte batzuk igaro ostean, erregina maitemindu eta berriro ezkondu zen igeltsero gazte batekin, diru askorik izan ez arren, oso pertsona ona zena.

Igeltsero hark arreba bat zuen, sorgin ahaltsua bera. Sorginak ere seme bat zuen, gutxi gorabehera erreginaren semearen adin berekoa. Bi mutikoez oso txikitatik ezagutzen zuten elkar eta helduarora sartzen hasi zirenean, maitemintzen hasi ziren.

Sorgina haserre zegoen bere semeak beste gizon batekin harremana hasi zuelako eta aholkua eskatu zion bere ispilu magikoari: *“Ispilutxo, ispilutxo, zer egin dezaket nire semetxoarekin? Ispiluak zera erantzun zion: “Hil ezazu. Harreman horrekin jarrai dezala ekiditeko modu bakarra da”.*

Sorginak ispiluari jaramon egin zion eta Edur Zuri gaztea hiltzen ahalegindu zen ehiztari baten laguntzarekin. Haatik, ehiztaria ere Edur Zurirekin maiteminduta zegoen sekretupean, eta ihes egiten utzi zion, hil beharrean.

Ihesean, Edur Zurik etxe bat topatu zuen. Has sartu zen babes bila eta bertan 7 ipotx eme aurkitu zituen. Haien bertan ezkutatzeko utzi zioten, baina trukean etxeke lanetan lagundu beharko zuen eta haien laguna izan beharko zen.

Sorgina, azkenean, Edur Zurik ihes egin zuela jakin zuen eta ehiztaria hil zuen traizioagatik, eta mutiko gazte hura berak hilko zuela

erabaki zuen. Mozorroitu eta aurkitu egin zuen, eta pozoitutako sagar bat eskaini zion. Edur Zuri gazteak amua irentsi zuen eta sagarrari hozka egin orduko zorabiatu egin zen.

Sorginaren semea bere mutil-laguna bilatzen ari zen, ez baitzuen ikusi duela zenbait egunetik, eta zorabiatu aurkitu zuen senargaia. Amari gizonak ere elkarren artean maitemindu daitezkeela eta beste inor maitatzeak ezer txarririk ez duela azaldu ostean, sorgina konbentzitu zuen eta hark pozoia desegin eta Edur Zuri suspertu zuen.

Sorginaren semeak eta errege-erreginaren semeak beren harremanarekin jarraitu zuten eta elkarrekin bizi izan ziren ipotx emeekin batera haien etxean.

ERRAUSKINE

Errauskine ugazama eta hiru ugazarrebekin bizi zen, eta elkarren arteko harremana oso ona zen. Behinola, erregeak erreinuko neska gazte guztiak gonbidatu zituen bere gazteluan ospatuko zuen festa batera.

Lau ahizpak elkarri lagundu zioten festarako lirain jartzeko asmoz. Hara iritsi zirenean, erregeak zerbait berezia ikusi zion Errauskineri eta asko gustatu zitzaion. Beraz, berekin dantzatzeko eskatu zion. Hark gonbita onartu zuen erregea oso atsegina izan zelako eta elkarrekin dantza aritu ziren gau osoan, irri asko eginez.

Festa amaitu aurretik, ahizpetako bat gaizki sentitzen hasi zen, gehiegi edan zuelako. Eta besteek harekin etxera joatea erabaki zuten hura zaintzeko. Errauskinek ez zuen betarik izan erregeari agur esateko. Beraz, hurrengo egunean haren bila joatea erabaki zuen erregeak, noizbait berriro elkar ikusteko gogoia ote zuen galdetzeko.

Hasieran ez zuen aurkitu, izan ere, hura bizi zen herria oso handia zen. Hala, denbora asko igaro zen aurkitu zuenerako, baina ikusi zuenean berehala ezagutu zuen eta berekin osteratxo bat ematera joan nahi ote zuen galdetu zion, solasean aritzeko. Berak onartu egin zuen gau hartan asko dibertitu zelako erregearekin eta hura ezagutzen jarraitzeko gogoia zuen.

Bata besteari gustatu zitzaenez, elkar ikusten jarraitu zuten askoz ere gehiago elkar ezagutzeko. Denborarekin harreman bat hasi zuten. Hilabete batzuetara harremana serioa izaten hasi zen.

Mikromatxismoak ehizatzen: Etsai ikusezin eta isilak



Eta urtebete igaro ondoren, urrats bat gehiago eman eta elkarrekin bizitzera joan ziren.

Haurren ipuin klasiko hauetan kendu ditugun mikromatxismoen inguruan gehiago ikasi nahi baduzu (eta beste gauza asko), bisitatu gure bloga:

<https://cazandomicromachismos.wordpress.com/>


Zer konta askorekin...

Haurren ipuinetako estereotipoak, maitasun erromantikoaren mitoak eta mikromatxismoak baztertzeko lan egiteaz gain, “Mikromatxismoak ehizatzen: Etsai ikusezinak eta isilak” proiektuan parte hartu duten neska-mutikoek, era berean, gure eguneroko bizimoduan bizitzen ditugun matxismoei buruz gogoeta interesgarriak egin dituzte.

“Ez zaigu normala iruditzen mutiko batek emakume bati kritika egitea futboleko edo kontaktu-kirol batean aritzeagatik, gizonentzako kirola dela irizten duelako. Era berean, ez zaigu normala iruditzen tipo batek kalean neska bat ikusi eta ipurdia ukitzea edo zenbat kobratzen ote duen galdetzea”.



“Pertsona guztiak gara berdinak. Pertsona guztiak jaso beharko lukete tratu bera, guztiok baikara gizakiak. Jendeak diskriminaziorik ez egitea gustatuko litzaiguke, izan ere, bakoitzak nahi duena egin ahal izan behar luke, betiere, gainerakoei min egiten ez badio. Ez gara inor beste pertsonen izaerari, ibiltzeko edo jantzeko moduaren inguruan ezer esateko”.



“Gure ustez, gaur egun, matxismo ugari dago. Mundu ororen etorkizunean gehiago erreparatzen hasi beharko ginateke, berdintasunaz, txikitatik hasita. Aldaketa hori bihar bertan gertatzea gustatuko litzaiguke baina jende gehienak duen pentsamoldearekin, badirudi hau gurpil zoro bat dela. Gure seme-alabak gu hazi gaituzten bezala hazten jarraitzen dugu”.

“Gure ustetan, onartezina da matxismoa edo arrazakeria irrogarria iruditzen zaien tresna modura erabiltzen duten diputatuak egotea. Ezin dugu politikari bat bere bizitza pribatuagatik epaitu, baina harreman pribatu batek ekintza politiko batean eragin dezakeela uste dugunean hartan arakatu bai.

Gainera, are lotsagarriagoa den albiste bat aurkitu dugu. “Eurodiputatu poloniar batek landa-eremuko despopulazioaren errua emakumeei egozten die, etxetik kanpo lan egiten dutelako”. XXI. mendean halako jendea eta halako jarrerak egotea oso gaizki iruditzen zaigu, izan ere, badirudi gauza batzuetan zenbat eta urrats gehiago eman, beste batzuetan orduan eta atzerago gaudela, esate baterako, matxismoarekin lotuta. Ez zaigu oso logikoa iruditzen herrialde bateko ordezkariak bizi-ikuspegi horiek izatea edo, hobeki esanda, ikuspegi horiek ezagutaraztea, pertsona publikoa baita, eta hark esandakoak eragina izan dezake jendearengan.

Ez gaude ados emakumeek gizonen baino soldata urriagoa izatearekin, izan ere, zenbateko bera ordaindu beharko lieke lan berdina egiteagatik, gizon zein emakume, guztiok berdina baikara.

Esan iezaiozu kamisetekin

Azkenik, “Mikromatxismoak ehizatzen” proiektuan parte hartu dutenek, egunerokotasuneko jarrera matxista horien aurkako leloak marraztu eta idatzi dituzte, haiek ikusarazi eta salatze aldera. Jarraian agertzen diren testu guztiak proiektuan parte hartu duten neska-mutikoen egindako gogoetak izan dira.

No Hagas Trato con el Maltrato: Garrantzitsua da emakumeen aurkako indarkeriari EZ esaten jakitea.



¿Que las chicas no podemos hacer qué? Emakumeek ere gizonak egiten dituzten gauza berberak egin ditzakegu. Horiek egiteko eskubide bera dugu, eta haiek egitegatik epaituak ez izatekoa.



Una chica no es una guarra por enrollarse con más de uno: Ez dugu emakume, bat gizon batek ere egiten duen ekintza baten aurrean, modu ezberdinean epaitu behar. Ez da zertan beti gizona izan behar lan egiten duena eta emakumea seme-alabekin eta etxearekin arduratu behar dena, alderantziz ere gerta daiteke, gizon-emakumeek elkarri lagunduz.



Mi cuerpo no quiere tu opinión: Fisikoa ez da beti garrantzitsuena eta, era berean, ez da zertan liraina eta perfektua izan behar bikotea izateko. Klean esaten diren lausenguak errespetu falta dira, izan ere, horrek zera suposatzen du, lausengua esaten duen gizonak, zu ezagutu gabe eta zuk haren iritzia eskatu gabe, zu fisikoki epaitzen zaituela, haragi puska bat izango bazina bezala.



Las pequeñas trampas de la vida cotidiana: Mikromatxismoak amarru txikia dira gure egunerokotasunean. Jarrera eta portaera horiek horren normalak dira (ohikoak), ezen jende askok ez baititugu ikusten.



VIVE'S (Vive tu vida, mujer): Kamiseta honek emakumeok ere nahi dugun bezala bizitzeko eskubidea dugula esaten digu, estereotiporik gabe edo mikromatxismorik gabe, eta lasai bizi beharko ginatekeela, gizonak bezalaxe.




Don't stereotype me! Mikromatxismo askoren oinarrian genero aldetiko estereotipoak daude, emakumeari zer dagokion eta gizonari zer dagokion esaten digutenak. Baina guztiok egin beharko genuke nahi dugun hura, gure burua mugatu gabe.



Yo elijo cómo me visto: Gu gara zer jantzi eta gainean zer eraman hautatzen dugunak, eta ezerk ezin digu hori ekidin. Eskote edo gonamotz batek ez dute lausengu bat, jazarpen bat edo eraso bat justifikatzen. Zure bikoteak ez du zure arropa kontrolatu behar jeloskor egoteagatik.



Watcha gonna do when women don't listen to you? Emakumeok egunerokotasuneko mikromatxismoak eta matxismoak identifikatzen ikasten badugu, azkenean matxistak diren gizonak bakarrik geratuko dira beren jarrerarekin.



Griselda Blanco era una mujer: Griselda Blanco kriminal bat izan bazen ere, eta inork hura eredutzat hartu beharko ez balu ere, kamiseta honek aldarrikatu nahi duena da emakumeok ere badugula botere-postuak betetzeko eskubidea. Griselda Kolonbiako droga kartel bateko liderra izan zen eta emakumeen artean ezohikoa den botere-postu bikaina erdietsi zuen.



El que come callado come x2 (No cuentes información, que luego no quieres que te tachen de “eso”): Kamiseta honek oso ohikoak diren mikromatxismoak islatzen ditu: Lehenik eta behin, mutiko askorekin dauden neskei irain egiten zaie, eta mutikoei, berriz, “heroi” edo “txapeldun”, “makina” edo “krak” esate zaie neska askorekin gauza bera egiten dutenean. Hori bidegabekoa da, argi eta garbi: ez ditugu modu ezberdinean epaitu behar gizonak eta emakumeak portaera bera dutenean.

Bigarrenik, neska bat kexu azaltzen denean bere sexu-askatasuna dela eta irainak jasotzen dituelako, berriro mespretxatu egiten dute: “ez zaitetz joan hortik kontuan esanez ez baduzu “hori” deitzea nahi”. Horrela, beti biktimari egozten zaio irainaren eta mikromatxismoaren errua.



Micromachismo (NO es NO). Dagoeneko mundu guztiak ulertu behar du emakumeen EZ hori, eta ez zaie behartu edo derrigortu behar egin nahi ez duten zerbait egitera.

